



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

582/2014 FORU AGINDUA, azaroaren 5ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena.

ORDEZKARI PROFESIONALAK

9. artikulua. Kontzeptua.

1. Profesionaltzat hartuko dira zerga arloko kudeaketa zerbitzuak maiztasunez egiten dituzten pertsona edo entitate guztiak, baldin eta alta emanda badaude Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bategina onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen Eranskineko lehen sekzioko 834, 841, 842 eta 847 taldeetan edo 849.7 epigrafean, edo, bestela, bigarren sekzioko 721, 722, 723, 726 edo 798 taldeetan edo 73 eta 74 multzoetan.

Gipuzkoako Foru Ogasunaren aurrean euren bezeroen izenean jarduteko, pertsona edo entitate horiek ezinbestekoa dute ordezkari profesional moduan inskribatzea zerga ordezkarien erroldan.

2. Ordezkari profesional moduan alta emanda ez dauden pertsonak haiekin lan harremanik ez duten bi pertsona juridiko edo gehiago ordezkatzeko badituzte edo beraiekin odolkidetasuneko 4. mailako edo ezkontza bidezko 2. mailako ahaidetasun harremanik ez duten 5 pertsonaren edo gehiagoren ordezkari badira, zergatik ez diren ordezkari profesionalak arrazoitu behar dute. Zergatia ez bada arrazoitzen edo behar adinako arrazoirik ematen ez bada, ofizioz tramitatuko da haren ordezkari-tza guztiei baja ematea.

3. Zerga kudeaketako profesionalek bitarteko elektronikoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako sinadura elektronikoko balioztatutako ziurtagiria erabili behar dituzte Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko harremanetan.